



Kirol Arrantza eta Kasting

Lehiaketen Araudia

1. ARTIKULUA

Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioak antolatzen dituen lehiaketetan eta probetan- ofizialak izan edo ez- erabiliko da araudi hau, formatu eta espezialitate guztietan.

2. ARTIKULUA

1.- Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioaren lehiaketak eta probak bi multzotan banatuko dira: ofizialak eta ez-ofizialak. Euskadiko txapeldun titulua ematen dutenak izango dira lehiaketa edo proba ofizialak.

2.- Lehiaketak eta probak mistoak izan daitezke, Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioaren lizentzia duten kirolariek batera modalitate bereko baina beste lurralde bateko lizentzia duten edo federazio lizentziarik ez duten kirolariek parte hartzen dutenean. Lehiaketa eta proba ofizialetan Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioaren lizentzia dutenek soilik parte hartuko dute. Dena dela, aldi berean eta antolakuntza berarekin, lehiaketa edo proba ofizialak eta mistoak jokatu ahal izango dira, betiere sailkapenak bereizita.

3. ARTIKULUA

Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioaren lehiaketak eta probak kategoria hauetan banatuko dira:

- Adinaren arabera:

Salmonidoak

Gazteak, 18 urte arte, lehiaketa edo proba jokatzeko den urtean beteak.

Nagusiak, 18 urtetik aurrera.

Ur geza

U-14, 13 urte arte, lehiaketa edo proba jokatzeko den urtean beteak.

U-18, 17 urte arte, lehiaketa edo proba jokatzeko den urtean beteak.

U-22, 21 urte arte, lehiaketa edo proba jokatzeko den urtean beteak.

Nagusiak, 21 urtetik aurrera.

Itsasoa/itsasertza

U-16, 15 urte arte, lehiaketa edo proba jokatzeko den urtean beteak.

U-21, 20 urte arte, lehiaketa edo proba jokatzeko den urtean beteak.

Nagusiak, 20 urtetik aurrera.

Kasting

Gazteak, 18 urte arte, lehiaketa edo proba jokatzeko den urtean beteak.

Nagusiak, 18 urtetik aurrera.

Jubilatuak, 65 urtetik aurrera, lehiaketa edo proba jokatzeko den urtean beteak.

Sexuaren arabera: Gizonezkoak eta Emakumezkoak. Hala ere, kategoria bakarrak izango dira, sexu bereizketarik gabeak, 15 urte arte, lehiaketa edo proba jokatzeko den urtean beteak. Adin horretatik gorako kirolari emakumezkoek, ur gezatan U-18 kategoriaren edo itsasoa/itsasertzean U-21 kategoriaren barnean daudenek, adinaren arabera sailkapena, sexu bereizketarik gabea, edo emakumezkoena hautatu ahal izango dute.

4. ARTIKULUA

1.- Lehiaketak edo probak hiru motatakoak izan daitezke:

- a) Banakakoa; kirolari bakoitzak lorturiko emaitza kontuan hartuz egingo da sailkapena.
- b) Taldekakoa; klub edo kirol elkarte bat ordezkatzeko duten taldeek lorturiko emaitzen arabera egingo da sailkapena.
- c) Selektzioakoa; federazio bat edo klub edo kirol elkarte ez den beste eremu bat ordezkatzeko duten taldeek lorturiko emaitzen arabera egingo da sailkapena.

2.- Era berean, lehiaketak edo probak bi eratakoak izan daitezke:

- a) Itxiak; partaideak alde aurreko sailkapen edo ranking baten bidez iritsiko dira lehiara.
- b) Irekiak: partaidetza librea izango da, betiere bakoitzari dagokion kategorian.

5. ARTIKULUA

1.- Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioaren lehiaketak eta probak

beraiei dagozkien arautegiaz oinarrituko dira. Lehiaketa oinarriak ezartzeko eskumena hauek dute: Batzar Nagusia, Zuzendaritza Batzordea edo hark eskuordetzen duen pertsona, Batzorde Teknikoa edo hark eskuordetzen duen pertsona.

2.- Nolanahi ere, lehiaketa oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetarako edo haiek interpretatzean sortzen diren ezbaietarako, Lehiaketa Araudi honek izaera subsidiarioa izango du.

6. ARTIKULUA

Espezialitate bakoitzeko araudi teknikoari dagokionez, Espainiako Arrantza eta Kasting Federazioak ezarritakoa aplikatuko da, betiere araudi honetan edo lehiaketa bakoitzaren oinarrietan ezarritakoaren aurka ez badoa.

7. ARTIKULUA

1.- Lehiaketa edo proba guztietan Epaimahai bat eratuko da, gutxienez kide hauek izango dituen: lehendakaria eta lehiaketa edo proba bakoitzeko epailea edo epaileak. Epaimahaiko lehendakaria eta gainerako kideak, lehiaketako edo probako epaile ez direnak, Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu, edo hark eskuordetzen duen pertsonak, eta bestela Batzorde Teknikoak edo hark eskuordetzen duen pertsonak. Nolanahi ere, Epaimahaiko kide izango dira lehiaketa edo proba baterako izendaturiko epaileak.

2.- Epaimahaiaren erabakiak gehiengo sinplez hartuko dira, eta berdinketarik egonez gero, lehendakariaren botoak erabakiko du.

3.- Epaimahaiko edo Batzordeko kideek ezingo dute lehiaketa edo txapelketa ofizialetan parte hartu, aurrez aipaturiko eginkizunetan ari behar badute.

8. ARTIKULUA

Epaimahaiaren eginkizunak hauek izango dira:

- a) Ordezkarari edo kapitain, kirolari edo lehiaketako patroien bileretan buru izan, Epaimahaiaren lehendakaria bera edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- b) Sektoreen eta tarteetan edo postuen zozketara joan, probaren edo lehiaketaren egunean egiten denean.
- c) Arrantzatutako aleen pisatzea eta kontatzea zaindu, eta neurtzea ere bai, behar izanez gero.
- d) Sortzen diren auzi teknikoak eta kirol auziak ebatzi.
- e) Behar diren aktak egin eta izenpetu.
- f) Proba lekuz aldatzea, bertan behera uztea edo atzeratzea erabaki.
- g) Aurkezten diren erreklamazioak ebatzi, lehen auzialdian.
- h) Lehiaketa oinarrien edo aplikagarri den beste araudiren baten arabera berari dagokion beste edozein eginkizun.

9. ARTIKULUA

Epaimahaiak teknika eta kirol gaietan ematen dituen ebazpenen aurka errekurtsioak aurkeztu ahal izango dira espezialitateko Batzorde Teknikoan, proba egunetik bi laneguneko epean. Batzorde Teknikorik ez badago, Zuzendaritza Batzordeak edo hark eskuordetzen duen pertsonak izango du eskumena.

10. ARTIKULUA

Epaimahaiak, ahal izanez gero, aktan jasoko ditu balizko diziiplina arau-urratzeak, eta Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioaren diziiplina organora helaraziko ditu.

11. ARTIKULUA

Epaimahaiak, proba bakoitzean, gutxienez akta bat egingo du, Epaimahaiko kide guztiek sinatuko dutena. Akta horretan jasoko dira, gutxienez, honako hauek: partaideak, sailkapena, erreklamazioak eta ebazpenak, eta gertatu diren gorabeherak.

Akta hauek Epaimahaiko presidentek Euskadiko Arrantza eta Kasting Federaziora bidaliko ditu, lau egun naturaleko epean.

12. ARTIKULUA

1.- Lehiaketetarako izen- ematea, oinarrietan adierazten den moduan egingo da. Oinarririk ez badago, proba hasi baino 30-15 egun lehenago egingo da.

Besterik adierazten ez bada, izen-emateak balio izateko kuota ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko da.

2.- Era berean, federazioaren lizentzia indarrean izan beharko da izena emateko unean, baldin eta proban parte hartzeko nahitaezkoa bada lizentzia.

13. ARTIKULUA

1.- Probaren edo lehiaketaren eremua behar beste tarte, sektore eta postutan banatuko da.

Postu bakoitzaren atzeko eta alboetako mugak seinaleztatuta egongo dira. Seinaleztapen horren lekuan postuaren zenbakia jar daiteke erdian eta atzeko mugan.

2.- Tarte, sektore eta postuak zozketaz banatuko dira, lehiaketa oinarrietan besterik adierazten ez bada behintzat, eta izena emanda dauden partaide guztiak joan ahal izango dira zozketara. Zozketa garaiz egingo da, eta lehiaketaren oinarrietan adieraziko dira eguna eta ordua. Batzorde Teknikoak zozketa ordua alda dezake, behar izanez gero, edo zehaztu egingo du baldin eta lehiaketa oinarrietan adierazi ez bada. Data edo ordua aldatzen edo zehazten badu, partaideei jakinaraziko die, izena ematean jarri duten helbide elektronikora mezu bat bidalita, eta Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioaren webgunean argitaratuta.

14. ARTIKULUA

1.- Kluben edo selekzioen arteko probetan talde bakoitzak ordezkari bana izendatuko du, ordezkaritza eginkizunak beteko dituen: zozketara joan, ordezkarien bileran parte hartu, pisatze edo neurtzeetan parte hartu, eta taldearen bozeramaile izango da horietan guztietan ez ezik ordezkatzeko dituen kirolarien defentsan egin beharreko kudeaketa guztietan. Proba garaian eta haiekin loturiko ekitaldietan Epaimahaiaren esanetara egongo da, eta beraz, erraz bilatzeko moduan. Banakako probetan ez da ordezkariarik eta kapitainik egongo.

2.- Kluben edo selekzioen ordezkaria berak ordezkatzeko dituen kirolarien postuetara sartu ahal izango da, espezialitate bakoitzeko egoeraren arabera, baina ezingo du haiek erabiltzeko moduko ezer eraman. Nahi izanez gero,

aholkuak emango dizkie, ahalik eta denborarik laburrenean, baina ezingo du partaideen kirol materiala eskuz ukitu, eta ezingo da sartu beste talde baten postura.

15. ARTIKULUA

1.- Sailkapenak behin-behinekoak izango dira, harik eta 30 minutu igaro arte. Bitarte horretan, banakako, selekzio edo talde-kluben emaitzen zerrendak agerian egongo dira, hartarako izendaturiko lekuan, betiere lekuak ahalbidetzen duen heinean. Sailkapenak lehiaketa izan den lekuan jartzerik ez badago, Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioaren webgunean eta lurralde federazioetan argitaratuko dira, lehiaketa amaitu eta 72 orduko epean. Kasu horretan, erreklamazioak aurkezteko epea 48 ordukoa izango da, argitara eman direnetik kontaktzen hasita.

2.- Epe hori igaro eta inork idatzizko erreklamaziorik aurkeztu ez badu Epaimahaiaren aurrean, edo aurkezturiko erreklamazioak behin ebatzi direnean, sailkapenak behin betikoak izango dira.

3.- Erreklamazioa aurkeztu aurretik diru kopuru bat jartzeko obligazioa ezar daiteke. Erreklamazioa onartzen ez bada, diru kopuru hori galdu egingo du erreklamazioa jarri duenak, eta itzuli egingo zaio baldin eta erreklamazioaren zati bat gutxienez onartu bada. Erreklamazioaren ebazpenean, salbuespen kasuetan, adieraz daiteke fidantza osorik itzuliko dela, erreklamazioa zentzuzkoa eta egoki argudiatua egoteagatik.

16. ARTIKULUA

1.-Partaideren bat agertzen ez bada edo lehiatik joaten bada, kanporatuta

geratuko da, eta izena emateko kuota nahiz gainerako eskubide guztiak galdu egingo ditu. Halaber, Epaimahaiak aktan jasoko du eta dagokion organoari jakinaraziko zaio, ondorio egokiak izan ditzan.

2.- Nolanahi ere, Lehiaketa Oinarrietan adieraz daiteke ez direla eskubideak galduko baldin eta partaideren batek behar bezala justifikatzen badu ez agertzea edo lehiaketa uztea.

17. ARTIKULUA

1.- Kluben edo selekzioen arteko lehiaketetan, parte hartzea ez dagokion kirolariren batek parte hartzen badu, bere taldea lehiaketatik kanporatuta geratuko da, eta izena emateko kuota nahiz gainerako eskubide guztiak galdu egingo ditu. Halaber, Epaimahaiak aktan jasoko du eta dagokion organoari jakinaraziko zaio, ondorio egokiak izan ditzan.

2.- Kluben arteko lehiaketetan, okerreko jokalaria zerrendatzat joko da kirolariren batek ez baldin badu partaide den klubeko federazio lizentzia, edo ez baditu kategoriari edo dagozkion bestelako baldintzak betetzen.

3.- Selekzioen arteko lehiaketetan, okerreko jokalaria zerrendatzat joko da kirolariak ez baditu kategoriari edo dagozkion bestelako baldintzak betetzen.

18. ARTIKULUA

1.- Hauek izango dira baliozko harrapaketak:

Lehiaketan arrantzatu nahi diren espezieetako aleak, lege ezarritako gutxieneko neurria dutenak, eta araudian ezarritako denboran eta moduan harrapatuak eta eskuratuak izan direnak.

2. Hauek harrapatzea ez da baliozkotzat joko:

- a) Krustazeoak eta moluskuak.
- b) Lehiaketaren xede ez diren beste espezie batzuetako arrainak.
- c) Kirol legez harrapatu ez diren arrainak, berariaz debekaturiko edo Lehiaketa Oinarrietan adierazi gabeko teknikak, beidak, amuak edo aparailuak erabiliz harrapatuak, hain zuzen ere.
- d) Partaideak arrantzatu ez dituen arrainak, edo garai eta leku desegokian arrantzatu direnak.
- e) Partaideak pisatzera ekartzen dituen arrainak harrapatzeko unean hilda zeudela ikusten bada.
- f) Lehiaketako xede diren espezieentzat ezarritako gutxieneko neurria iristen ez diren aleak.
- g) Baliozko eremuetatik kanpo harrapatutako aleak.
- h) Babesturiko espezieak.
- i) Hondatutako piezak, dagokion espezialitatean.

3.- Baimendutakoa baino nabarmen txikiagoak diren aleak, partaideari zalantzarik eragiten ez diotenak, uretara itzuli behar dira berehala. Baliozko ez diren arrainak pisatzera eramaten badira, penalizazioa jaso daiteke, baldin eta hala jasota badago arau espezifikotan edo lehiaketaren oinarrietan.

4. - “Heriotza gabeko” harrapaketak egin ezin diren lehiaketetan, antolakuntzaren ardura izango da arrainak nora bideratuko diren erabakitzea. Hala ere, eta salbuespen kasuetan, merkaturatzeko baimena eman daiteke, baina, betiere, salmentatik eskuratzen den etekina ongintzako helburuetarako izatekotan. Dena dela, partaideek beti arrainak

antolakuntzaren esku utzi beharko dituzte.

19. ARTIKULUA

1.- Lehiaketetan edo probetan, kirol materiala espezialitate bakoitzeko araudiari egokituko zaio. Baimendu gabeko ekipoak erabiltzen duena txandatik edo fasetik kanporatuta geratuko.

2.- Elementu lagungarri moduan, amuari loturik dagoen pieza uretatik ateratzeko, salabardoa eta kizkia erabil daitezke, betiere espezialitatearen arabera.

20. ARTIKULUA

Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioak adierazitako gutxieneko neurrien taula erabiliko da, eta ezarritako kupoak, hala badagokio. Lehiaketa oinarrietan harrapaketen ebaluazio irizpideak ezarri ahal izango dira, neurri bakoitzari dagokion pisuaren arabera.

21. ARTIKULUA

1.- Amu artifizialtzat hartuko dira honako hauek: koilaratxoa, devoniarra, arrain artifiziala (artikulatua edo finkoa) eta beita naturalen imitazio moduan ekoitziriko objektu guztiak, hala nola zizareak, izkirak, zomorroak, matxinsaltoak, kilkerrak, igelak, saguak, karramarroak, inurriak, harrak, araknidoak edo intsektuak oro har, edozein dela ere beren egoera morfologikoa, eta bereziki "euli artifizial" izenarekin ezagutzen direnak.

2. – Beita naturaltzat hartzen dira jatorri organikoa duten materia guztiak, lehengaia izan edo elaboratua, hautsa izan edo masilla sinplea edo

konposatua. Arraina, frutak, zerealak, arrain zatiak, hondakinak, nahasturak, intsektuak eta jatorri organikoa duten gainerako materiak, harrak, moluskuak, krustazeoak eta bestelako landareak edo animaliak barne.

3.- Euskadiko Arrantza eta Kasting Federazioak antolaturiko lehiaketa guztietan beita naturalen edo artifizialen erabilera Euskal Autonomia Erkidegoan arrantza eskumena duen erakundeak eta espezialitate bakoitzeko araudiak baimendutakoaren arabera izango da.

22. ARTIKULUA

1.- Espezialitate bakoitzaren araudietan edo lehiaketa oinarrietan adieraziko da partaide bakoitzak zenbat kanabera erabil ditzakeen aldi berean. Baina berekin kanabera bat edo gehiago izan ditzake ordezeko moduan, nahi duenean erabiltzeko, eta bere erantzukizuna izango da haiek garraiatzea eta zaintzea. Ezingo dira arrantzan erabili espezialitateko arauak debeku hori ezartzen badute.

2.- Partaideak proba jokatzen ari den lekutik irten behar badu, dela motibo fisiologikoengatik dela beste zernahigatik, nahitaezkoa izango da epaimahaiari baimena eskatzea, bai irteteko bai berriro sartzeko. Lehiaketako epaileak egoki iritzitako kontrol neurriak hartuko ditu, kirol lehia behar bezala gauza dadin.

3.- Edozein kausa dela medio partaidea irteten denean, arrantza egiteko jarrita dauzkan kanaberak kendu egin beharko ditu.

4.- Irteteko baimena ematen denean hartzen diren neurri berak hartuko dira partaideari postuz aldatzeko baimena ematen zaionean, betiere kasuan kasuko

araudiak adierazitako moduan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen da lehen indarrean zegoen lehiaketa araudia, bai eta maila bereko edo baxuagoko haren aurkako arau guztiak ere.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da onartu eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzen den egun berean.